PROGRAMA
EUSKERA

URRIA AZAROA ABENDUA 2023



gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Azaleko irudia: Bene Bergado. *Decrecer*

# AURKIBIDEA


**6**
Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

## PROGRAMAZIOA

**10**



**Bene Bergado**
*Decrecer*. Erakusketa

**12**
**Elena Aitzkoa.** Artista AZkidea. *Ur aitzak*. Eskultura

**13**
**Julia Martos.** Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa
*Un vestido claro clarísimo*

**14**
**Alán Carrasco**
*100+1.* Instalazioa

**15**
**Ulises 2.0**
Erakusketa

**16**
**Miguel A. García.** eszenAZ
*Eyezorros* diskaren aurkezpen kontzertua

**17**
**Verde Prato.** eszenAZ
*Adoretua.* Kontzertua

**18**



**Led Silhouette.** eszenAZ
*Los perros.* Dantza

**19**
**L'Alakran.** eszenAZ
*INACTUELS.* Antzerkia

**20**



**Instituto Stocos.** eszenAZ
*Oecumene.* Dantza

**21**
**Tripak.** eszenAZ
*Platea.* Antzerkia

**22**
**Cielo RasO.** eszenAZ
*Hâmaïkà.* Dantza

**24**



Mangatik zinemara. japoniako zinema garaikideko zikloa. Zinemateka

**26**
Donostiako Zinemaldia Azkuna Zentroan. Zinema

## SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

**30**
Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa

**31**
Dantzan Bilaka 2023

**32**



Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology. ACuTe
Egonaldi berriak

**34**
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa

**36**
Artista AZ-kideak

**37**
Ikertzaile AZ-kideak

**37**
Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarra

## HEZKUNTZA PROGRAMA

**40**
Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera... ekin!

**40**
Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

**41**
Club de Lectura Fácil

**41**
Irakurketa Erraza

**41**
Hiriko Literatura

**42**



Erakusketara bisita-tailerra *Decrecer*

**43**
Zinemaldia eskolentzat

**43**
Mitusu, Haur eta gazteentzako antzerkia

## AZ

**52**



AZ argitalpenak

**55**
JFZ

**56**
Informazio orokorra

# Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



**Elena Aitzkoa**
Artista AZ-Kidea



**Miguel A. García**
Artista AZ-KideaZ



**Ion Munduate**
Artista AZ-Kidea



**Alán Carrasco**
Artista



© Lorea Alfato, 2021

**Isabel de Naverán**
Ikertzaile AZ-Kidea



**Pablo Marte**
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



**Estanis Comella**
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



**Oihana Vicente**
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



© Eduardo D'Acosta

**Julia Martos**
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



**Maia Villot**
Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



**Gorka Rodriguez, Arrate Presilla, Maialen Ariz, María Arana**
Urbanbat
Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarra



**Bene Bergado**
Artista



**JL Moraza**
Komisarioa eta artista



**Jaiotz Osa, Xabier Mujika**
Osa + Mujika



**Rafke Van Houplines**
Dantzaria



**Matxalen Bilbao**
Koreografoa eta dantzaria



**Verde Prato**
Artista eta musikaria



**Martxel Rodriguez, Jon López**
Led Silhouette



**Igor Calonge**
Cielo RasO
Koreografoa eta dantzaria



**Muriel Romero, Pablo Palacio**
Instituto Stocos



**Oscar Gómez Mata**
L'alakran
Aktorea eta dramagilea



**Juan Loriente**
Aktorea



**Andrea Berbois Marina Suarez, Natalia Suarez, Maite Mugerza,**
Tripak

# eszen//

## Azkuna Zentroaren arte

Antzerkia, musika, dantza eta performancea sentitzeko beste era bat

OSA+Mujika. *Bueltaxka*
Dantza
**Irailak 28, osteguna**

Matxalen Bilbao. *Fugas*
Dantza
**Irailak 28, osteguna**

Miguel A. García. *Eyezorros*
diskaren aurkezpen kontzertua
**Urriak 10, asteartea**

Verde Prato. *Adoretua* diskoaren aurkezpen kontzertua
**Urriak 18, asteazkena**

Led Silhouette. *Los perros*
Dantza
**Urriak 26, osteguna**

L'Alakran. *INACTUELS*
Antzerkia
ESTREINALDIA EUSKADIN
**Azaroak 9, osteguna**
**Azaroak 10, ostirala**

Instituto Stocos
*Oecumene*
Dantza
**Azaroak 23, osteguna**

Tripak. *Platea*
Performancea
**Azaroak 29, osteguna**

Cielo RasO. *Hâmaïkà*
Dantza
**Abenduak 14, osteguna**

# AZ 2023 2024

## eszenikoen denboraldia

### Cris Blanco
*Grandissima illusione*
Antzerkia
**2024ko urtarrilaren 18a, osteguna**

### LaEnanaNaranja
*Kontukantari 3*
Musika eta txotxongiloak
ESTREINALDIA
**2024ko urtarrilaren 20a, larunbata**

### Lari Produkzioak
*Zaintzaren dantza*
Antzerkia
ERABATEKO ESTREINALDIA
**2024ko otsailaren 4a, igandea**

### Paul B. Preciado
*Yo soy el monstruo que os habla*
Hitzaldi dramatizatua
**2024ko otsailaren 15a, osteguna**

### Gaston Core
*Antes de que caiga la noche*
Dantza
**2024ko martxoaren 2a, larunbata**

### Nazario Díaz
*Amanecer.Alto.Cielo*
Dantza
ESTREINALDIA EUSKADIN
**2024ko apirilaren 11, osteguna**

### Led Silhouette. *Öpus*
Dantza
ESTREINALDIA EUSKADIN
**2024ko apirilaren 25a, osteguna**

### Pablo Viar
*Confines*
Antzerkia
ERABATEKO ESTREINALDIA
**2024ko maiatzaren 23a, osteguna**

## AUDITORIO+KUBO BALTZA



#artebisualak #erakusketa

# Bene Bergado

*Decrecer*

Komisarioa: Juan Luis Moraza

Bene Bergado eskultoreak *Decrecer* aurkezten du Erakusketa Aretoan. Site specific aktibista honetan, "urritu" infinitiboa/inperatiboa erantzun bihurtzen da, neurrigabeko hazkundearen eta baliabideen agortzearen egungo egoeraren aurrean. Bene Bergadok desazelerazio baten beharra adierazten du, mugaren kontzientziaren bidez, energia gutxi eta bizi-aldaketa ezinbestekoak izango dituen etorkizun hurbilera egokitzeko.

Juan Luis Moraza artistak komisariatutako erakusketa honen bidez, artista Bilbora itzuli da, alderdi biografiko eta ideologikoak uztartuz. Bideoaren, eskulturaren edo instalazioaren bidez formalizatuta, erakusketan *Tierra quemada* nabarmentzen da, Azkuna Zentroak erakusketa honetarako ekoitzitako pieza. 30 metroko altuera duen dorre elektriko bat da, 4 zati eginda. Ez da erortze edo suntsitzearen metafora, baizik eta dorre desmuntatu bat, biltegiratua, baztertua, habitat edo babesleku bihurtua.

Era berean, artistaren ibilbideari ia atzera begira egindako hurbilketa bat da erakusketa. Batez ere *Bateria* lana: artistaren 1990eko hamarkadako lan batzuk objektu pertsonalekin, liburuekin eta bere unibertso estetiko eta sortzaileari erreferentzia egiten dioten beste elementu batzuekin lotzen dituen apalategi industriala.

**2023KO EKAINAREN 29TIK 2024KO URTARRILAREN 7RA**

Erakusketa Aretoa

Sarrera doan

**JARDUERAK**

**Sarrera gisako 45 minutuko bisita iruzkinduak erakusketara,**
Ostegunero, 18:30ean.

**Eskola-programa**
Eskola dagoen ostegun guztietan, 11:00etatik 13:00era.

## BENE BERGADO

Salamancan jaioa (1963), Bene Bergado Bilbon bizi eta hezi da. Ibilbide luzea du, eta taldeko eta banakako erakusketa ugari egin ditu. Bere obra eskultorikoa da gehienbat, baina diziplina horretako teknika konbentzionalak gainditzen ditu. Bereziki zaindutako prozesuak, formak eta materialak lantzen ditu, birtuosoak ere bai, eta, horiekin, gaur egungo bizipenen konplexutasuna aztertzen du. Haren eskulturetan, dena da aldi berean sinesgarria eta nahasgarria, susmagarria eta egiazkoa.

## JUAN LUIS MORAZA

(Gasteiz, 1960). Eskultorea eta komisarioa. Bakarkako erakusketak egiten ditu eta talde-erakusketetan parte hartzen du 1980tik. Vigoko Unibertsitateko irakasle titularra da eta hainbat unibertsitatetako master eta doktoregoko programetan irakasten du. Besteak beste, honako erakusketa hauek komisariatu ditu: *Tesoro público. Economías de realidad* (ARTIUM, 2012), *El retorno de lo imaginario. Realismos entre XIX y XXI* (Reina Sofía, 2010) edo *Incógnitas. Cartografías del Arte contemporáneo en el País Vasco* (Guggenheim-Bilbao, 2007)

#artebisualak #eskultura #poesia

# Elena Aitzkoa

Artista AZ-kidea

*Ur Aitzak*

**2022-2023**

Kulturen Ataria

### Cisne

*Permitirse la nada*
*sesgada*
*por los planos de placer*
*Desde el corazón del río*
*amar y protegerse con belleza*

Elena Aitzkoak *Cisne* lana aurkezten du hiruhileko honetan, *Ur Aitzak* proiektuko bosgarren eskultura. Proiektu horretan, artista AZkide gisa lan egiten du, Zentroaren proposamenari erantzunez, «herritarrekin bat egiteko eta, nolabait, haien eraldaketa nabariaren parte aktibo izateko».

*Ur Aitzak* proiektua sei piezek osatzen dute, Atarian pixkanaka sortuta, ahots- eta poesia-lan bati lotuta beti. Azken pieza hau dagoeneko ikusgai dauden eta Josu Bilbaorekin lankidetzan sortu dituen *Ciénaga Estrellada, Arrebol, Luz cauce* eta *Horizonte nuca* bilduko da.



Eskultura *Horizonte nuca*. Elena Aitzkoa. Kulturen Ataria

**ELENA AITZKOA**

(Apodaka, 1984). Artista. Besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian, performancean eta zineman aritzen da. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta inguruneko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Haren azken proiektuen artean, *Lendia Song* nabarmentzen da (Azkuna Zentroa, Bilbo, 2021). Isabel de Naveránek Reina Sofía Museoan komisariatutako *Estudio III. Salir al Encuentro. Hablar al lugar* zikloan parte hartu zuen (2021).

#artxiboa #bideosaiakera #artistmovingimage

# Julia Martos

Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa

*Un vestido claro clarísimo*

Julia Martos *Un vestido claro clarísimo* lantzen ari da hilabete hauetan, Babestu. Azkuna Zentroaren Sorkuntzari laguntzeko programako artista egoiliar gisa garatzen duen ikerketa-proiektuan.

Zinema dokumental garaikidearen, artist moving image-aren eta artxibo pertsonalarekin egindako lanaren arteko elkargunean kokatutako proiektu honen jatorria gutun, egunkari eta beste dokumentu batzuen azterketa da, «ia ezagutu ez nuen nire familiako pertsonaia batenak dira: amaren aldeko amona nuen Carmen Quirósenak», azaldu du artistak. Artxiboa «zahartzearen eta denboraren iragaitzaren inguruko obsesio baten inguruan dabil, eta xelebrekeria berezi baten bidez erakusten du: obsesio finkoa du inguratzen duten emakumeen itxura fisikoarekiko».

**IRAILAREN 28TIK URRIAREN 8RA**

**Materialen eta lan-prozesuaren erakusketa**

BAT Espazioa. Lantegia 2




**JULIA MARTOS**

(Kordoba, 1989) artista bisuala eta programatzailea da. Ikus-entzunezko azken lanetan, autobiografia eta historia pertsonala erabili ditu, errealitate sozial zabalagoen input bideratzaile gisa.

#zinema #instalazioa

# Alán Carrasco

*100+1*

Alán Carrasco artista bisual eta ikertzaileak "*Le due differenti fasi della tensione*" pieza aurkeztuko du Mediateka Galerian, 2021ean Erromako Espainiako Akademian izan zuen egonaldian ekoitzia.

*100+1* izenburuak Pier Paolo Pasolini (1922- 1975) zinemagilearen jaiotzaren mendeurrenaren oroitzapenari egiten dio erreferentzia. Instalazioa neoizko errotulu bat da, *“Le due differenti fasi della tensione”* (Tentsioaren bi fase desberdinak) osatzen duena, hau da, zuzendari italiarren “idazki kortsarioen” zati bat, idazlearen Olivetti Lettera 22 makinaren tipografiarekin.

Pieza itzalita egoten da egun osoan, 16:37tik 10:25era bitarteko tartean izan ezik: aipatutako atentatuen orduak, hurrenez hurren. Ekintza zital horiek argitu nahi dituen keinu poetiko txiki bat eginez, esaldi kezkagarriak gogora ekarriko digu, egun-argi gutxiago duten orduetan, “strategia della tensione” batez ere ekintza politikoa izan zela.

## URRIAREN 15ERA ARTE

Galeria Mediateka

Sarrera dohainik




Alán Carrasco. *100 + 1*

## ALÁN CARRASCO

Artista bisuala eta ikertzailea da. Gaur egun, doktoretzako ikerketa egiten ari da Bartzelonako Unibertsitateko Artearen Historia eta Teorian doktorego-programan eta Brandenburgoko Unibertsitate Teknikoko Arkitekturaren Historia programan. Lan horretan, ikonoklastia eta memoria kolektiboa kontzeptuak aztertzen ditu, 1919an zapuztutako Spartakusaufstand greba orokorretik 1989an Berlingo Harresia erori zen arte izandako gertaera soziopolitikoetatik abiatuta.

#artebisualak #erakusketa

# Ulises 2.0

*Ulises 2.0* k erakusketan jasotako lanak (2008) eta Zubietxe elkarteak eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok batera argitaratutako *Ulises 2.0* katalogo-liburua aurkezten ditu. Bertan, 13 herrialdetan jaio eta 25 hiritan bizi diren pertsonek parte hartu zuten, leku desberdinetatik abiatutako bidaia zail horri buruzko elkarrizketak osatzeko.

Ilustrazioek prozesu osoa jorratzen dute: beren herrialdea uzteko erabakia hartzen denetik, harrerako gizartean integratu arte; eta bere aniztasun osoan erakusten dute, migratzera bultzatzen duten arrazoiei, migratzailearen profilari, genero-berezitasunei eta bidaiaren faseetan dauden arazoei dagokienez.

Ilustratzaile profesional batek egin du migratzaileek egindako lan bakoitzaren bertsioa, besteak beste, Paco Roca, Manuel Bartual, Raquel Alzate, Sonia Pulido, Lola Lorente, Javier de Isusi eta antzeko beste profesional batzuek.

Hala, *Ulises 2.0*-k aukera ematen digu egiaztatzeko itxuraz oso bizitza desberdina duten bi artista elkar ulertzeko gai direla, batez ere, bi pertsona direlako.

**2023KO URRIAREN 26TIK 2024KO URTARRILAREN 28RA**

Galeria Mediateka

Sarrera dohainik

#artebiziak #eszenAZ #SOINUA

# Miguel A. García

## *Eyezorros* diskaren aurkezpen kontzertua

*Eyezorros-ek* Miguel A. Garcíak Azkuna Zentroko artista AZkide gisa sortutako soinu-ekoizpen guztiaren aukeraketa bat aurkezten du. Biniloan jasotako "urrezko disko" bat. Soinu-artistak *Comclapompos. Usar el flujo como un cauce* proiektua garatu du azken bi urteetan. Inguruko sinergiak bereganatzen dituen musika-konposizioko lan honek egituraren era askotako aukeretan sakontzen du. Oso esperimentala den eta elektroakustikatik hurbilago dagoen ikusmolde batetik abiatuta, Miguel. A Garcíaren musika tolestu eta hedatzen da, ahotsa, dantza, beste lengoaia batzuk eta beste sentipen batzuk jasotzeko, formaren deskonposizioa malguki gisa arakatuz. «Soinua da bitartekoa, eta niretzat jatorria da, baina ez amaiera: bitarteko horretatik abiatzen diren musikari eta artistekin lan egitearekin batera, nahi nuke beste diziplina batzuetara zabaldu, baina beti modu organikoan», azaldu du artistak.

Diskoa hainbat artistarekin elkarlanean sortu da: Elena Aitzkoa (Azkuna Zentroko artista AZkidea), Luis André, Fernando Carvalho, Ilia Belorukov, Alba Burgos, Ferran Fages, Garazi eta Mikel Gorostiaga, Garazi Navas, Alex Reviriego, Ibon RG, Matías Riquelme, Marta Sainz, Beatriz Setien, Fernando Ulzion, Mikel Vega eta Natalia Vegas.

*Eyezorros* Azkuna Zentroak ekoitzitako lehen biniloa da, eta haren bidez zentroaren sorkuntza artistikoaren euskarri diren formatuak zabaltzen dira. LPa salgai dago dendAZen, Azkuna Zentroaren saltokian, eta dendaz.azkunazentroa.eus helbidean.



**URRIAK 10, ASTEARTEA**

19:00

Auditorioa

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

xedh.org

@miguel_a_garcia

**FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA**

Egilea: Miguel A. García

Azalen diseinua / binilo-gailetak: Raúl Dominguez

Ekoizlea: Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

Masterizazioa eta nahasketa gehigarriak: Juan Carlos Blancas

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024

#artebiziak #eszenAZ #MUSIKA

# Verde Prato

## *Adoretua* diskoa aurkezteko kontzertua

Verde Pratok bere azken albuma aurkeztuko du, *Adoretua* izenekoa, kemena eta ausardia esan nahi duen adore hitzean oinarritua. Hori sentitzen baitu konposizioari, agertokiari, biluztasunari eta bere burua ireki, erakutsi eta abesteko ausardiari bakarrik aurre egiten dionak, asmoen adierazpen gisa.

*Adoretuak* argia du, Verde Pratoren kantek aurretik izan ez duten moduko argia. Hau ere bilakaera bat da, boleroak edo popak baino kutsu tragikoagoa duena. Libre baina intimista hegan egiteko bere aurreko proposamenek kohesionatzen zuten kontzeptualtasuna alde batera uzten du, esperientzia pertsonalak bilduz eta gai unibertsalak adieraziz, hala nola maitasuna, erotismoa, desengainua, familia, haurtzaroa eta munduarekiko topaketa, bakardadea, ametsak...

*Adoretua* artista paregabe honen eboluzioaren berrespena da, ñabardura ezezagunez eta kolore ustekabez betetako zerurantz igotzen jarraitzen baitu.



**URRIAK 18, ASTEAZKENA**

19:00

Auditorioa

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

60'

@verdeprat0

@VerdePrato

Bandcamp: Verde Prato - Adoretua

**FITXA ARTISTIKOA**

Verde Prato: Ana Arsuaga

Ekoizlea: Jon Aguirrezabalaga

Argazkilaria: Maria Muriedas

Diseinua: Sahatsa Jauregi

Disko-etxea: PlanBrecords

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024

#artebiziak #eszenAZ #DANTZA

# Led Silhouette

*Los perros*

Garaiko seme-alabak izaki, aro digitalean jaiotakoak egoera ezegonkor eta nahasi batean bizi dira, eta gizatasuna galtzeko eta bakartzeko prozesu bati aurre egin behar diote (eta aurre egin behar diegu). Horretarako, badirudi irtenbiderik arrakastatsuena blindatze indibiduala dela, identitate bereizi bat edo marka pertsonal bat sortzea.

Led Silhouette-ren konpainiaren azken sorkuntza eszenikoak duen proposamena errepikapenaren trantzetik irudien segidarekiko lilurara doa. Atzokotik lapurtu, eta biharrera jaulkitako irudiak, oraingoak eta iraganarekin lokaztuak, plastika garaikidetik forma atabiko lurtarreraino, garaien eta lengoaien etengabeko gurutzaketan. Martxel Rodriguez eta Jon Lópezek hiru belaunaldiren arteko elkarrizketa irudikatzen dute, Carmina S. Belda idazle eta antzerkigilearen testuen proiekzioarekin lagunduta, eta Oier Zuñiga aktorearen offeko ahotsarekin eta Cristobal Saavedraren musikarekin batera.



Led Silhouette. *Los perros*

**URRIAK 26, OSTEGUNA**

19:00

Kubo Baltza

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

50’

ledsilhouette.com

@led_silhouette

**FITXA ARTISTIKOA**

Proiektuaren zuzendaria: Led Silhouette
Ideia eta zuzendaritza artistikoa: Marcos Morau
Laguntza koreografikoa: Marina Rodriguez
Antzezleak: Jon López eta Martxel Rodriguez
Testua: Carmina S. Belda
Itzulpena: Gaizka Sarasola eta Mattane Rodriguez
Offeko ahotsa: Oier Zuñiga
Lankideak: Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuaren DNA programaren eta Fundación Caja Navarra - Fundación "La Caixa"ren INNOVA Cultural-aren laguntzarekin. Lesakako Udala
Ikuskizun hau euskal antzokien sareko 2023ko dantza-zirkuituaren parte da.

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024

**#artebiziak #eszenAZ #ANTZERKIA**

# L'Alakran

## *INACTUELS*

Gaur egun, gero eta zailagoa da konfiantza izatea. Zalantza egiten dugu ikusten eta entzuten dugunaz. Ezin gara ziur egon zuk eta biok gauza bera ikusiko dugunik. Ikusgai denak errealitatearen irudi bat ematen digu benetan? Zerbait ikusten dugu, baina ez dakigu benetan zer den.

*MAKERS*, Oscar Gómez Mata – Compagnie l'Alakran-ek artista AZkide gisa garatutako azken sorkuntza, Juan Loriente aktorearekin izandako konplizitate artistikoaren emaitza da. Hori da, berriz, *INACTUELS*en sormen-bultzadaren oinarria. Pailazo metafisikoen bikote honek jarraitzen du sentiberatasunaren azpian sentiberatasuna bilatzen. Oraingoan materia bizigabea dago hor, frogatu gabeko egia batzuk guri erakusteko. Oraingoan, Sandra Cuestaren laguntza artistikoa izango dute. 2020an, Soniak *Lo adherente y el fuego* soinuzko esku-hartzea egin zuen Azkuna Zentroan.

*INACTUELS* Grütli – Genevako (Suitza) arte bizien ekoizpen- eta hedapen-zentroaren, *INACTUELS*en eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren koprodukzioa da.



**AZAROAK 9, OSTEGUNA ETA AZAROAK 10, OSTIRALA**

**ESTREINALDIA EUSKADIN**

19:00

Auditorioa

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

50'

**FITXA ARTISTIKOA**

Sorkuntza eta zuzendaritza: Oscar Gómez Mata
Antzezleak: Juan Loriente eta Oscar Gómez Mata
Lankidetza artistikoa: Sandra Cuesta
Argia eta zuzendaritza teknikoa: Leo Garcia
Eszenografia: Vanessa Ferreira Vicente
Koprodukzioa: Le Grütli – Centre de production et de diffusion des arts vivants – Geneva, le Théâtre populaire romand – Centre neuchâtelois des Arts vivants – La Chaux-de-Fonds, l'Arsenic – Centre d'art scénique contemporain – Lausanne eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao (Bilboko gizarte eta kultura garaikidearen zentroa)

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024

#artebiziak #eszenAZ #tecnologia #musika #DANTZA

# Instituto Stocos

*Oecumene*

Oecumene Alexandriako kosmopoli idealetik datorren termino bat da: osotasun gisa habitatutako mundu bat, gizon eta emakume libreen gizatasun zibilizatuaren jabetza komuna. Hiru dimentsioko soinu-diseinu murgiltzailea duen eta dantzari batentzako sortua den dantza honetan garatutako kontzeptua. Obra honetan, dantzariak planetako leku askotatik iritsitako fonemez osatutako soinuzko itsaso batean nabigatzen du.

*Oecumene* lan transdiziplinarra da, goi-teknologia uztartzen baitu dantzarekin, konposizio elektroakustikoarekin eta bisual interaktiboekin. Munduaren esperimentazio sentsoriala proposatzen du gorputzaren bidez, eta hausnarketa egiten du gizabanakoak munduan duen lekuari buruz, teknologiaren bidez zentzumenak hedatuta dituela, bere jatorri geografikoaren mugetatik eta jatorrizko identitate kulturaletik haratago. Adimen artifiziala, biologia, matematika eta psikologia esperimentala dantzatzea posible den erakusgarri.

Azkuna Zentroak Instituto Stocos-aren lana aurkezten du Dantzaldian, La Fundición-en Nazioarteko Dantza Jaialdian.



2023 XXIV·EDIZIOA DANTZALDIA La FuNdicIOn BILBAO

**AZAROAK 23, OSTEGUNA**

19:00

Kubo Baltza

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

40’

stocos.com/

@institutostocos

## FITXA ARTISTIKOA

Kontzepzioa eta ideia: Pablo Palacio eta Muriel Romero
Koreografia: Muriel Romero
Musika: Pablo Palacio
Antzezleak: Muriel Romero
Softwarea eta teknologia interaktiboa: Pablo Palacio eta Daniel Bisig
Argiak: Maxi Gilbert
Ekoizpena: Instituto Stocos
Laguntzak: Europar Batasuna (H2020), Madrilgo Erkidegoa, Beirut Citern, Festival Ellas Crean, Festival Piksel, XLR Studio, Infomus-Casa Paganini- Universitá de Genova (Italia) eta Institute for Computer Music and Sound Technology of Zurich (Suitza).

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024

#artebiziak #eszenAZ #antzerkia #PERFORMANCEA

# Tripak

*Platea*

*Platea* Tripak euskal konpainiaren hirugarren ekoizpena da. Heriotzaren eta bizitzaren artean gertatzen denari buruzko hausnarketa existentziala, umorerako eta absurdorako tartea ere baduena. Obran, umoreak eta absurdoak zeharkatzen dituzte minaren eta urraduraren irudiak; kantu polifonikoek eta akordeoiaren eta biolinaren soinuek —klasikotik esperimentalera joz— ikuspegi poetiko eta abstraktuak biltzen dituzte. Pieza asmo estetiko sakon baten emaitza da, narratiba konbentzionala gainditzen du, eta bitarteko bat da publikoa barreetatik eta malkoetara eramateko.

Publikoak bidaian laguntzen die mundu horretara iristen diren pertsonaiei. Egoera emozional arketipikoenen gainetik, gizakiaren alderdi ez hain nabarmenak erakusten dituzte. Arbuiatua izateko beldurra, desobedientzia, manipulatzeko saiakerak, barregarri geratzeko sentsazioa edo adierazteko ezintasuna dira obra ehuntzen duten distirak.



## AZAROAK 29, OSTEGUNA

19:00

Auditorioa

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

70'

tripakkolektiboa.wixsite.com/website

@tripak.k

## FITXA ARTISTIKOA

Ideia, testuak, eszenaratzea eta eszenografia: Natalia Suárez, Marina Suárez, Andrea Berbois eta Maite Muguerza
Antzezleak: Natalia Suárez, Marina Suárez, Andrea Berbois, Maite Muguerza eta Garazi Navas
Kanpoko begirada: Mayi Martiarena
Musika: Andrea Berbois eta Garazi Navas
Testuak: Tripak
Babesleak: DINAMOA, Eremuak, S'ALA espazio per artist*, Bulegoa z/b, AZALA, GaraiOn, Arropaineko Arragua, BARATZA Aretoa, Tabakalera, L'Animal a L'esquena.

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024

# Cielo RasO

*Hâmaïkà*

2023 XXIV·EDIZIOA DANTZALDIA La FuNdicIOn BILBAO

Igor Calonge koreografo eta dantzariaren Cielo RasO konpainiaren urteurrena ospatzen du *Hâmaïkàk*. Areto-pieza honek 11 urteko sormen-ibilbidea nabarmentzen eta hausten du, malgua da, eta desberdintasuna, generoa eta askatasuna balioesten ditu. Lan koreografikoa indartsua da, baina hizkuntzak begirada aditua behar du, eta hori zuri esker bakarrik gerta daiteke.

*Hâmaïkàk* fikzioa eta errealitatea ukitzen ditu, ez oso modu serioan, begiratzera bultzatuz. Fikzioa eta errealitatea nahasten direnean, magia agertzen da. Magiak trikimailua du, eta trikimailua, oro har, ez da erakutsi nahi izaten, erakustean ilusioa hiltzen baita. Baina ilusioa soilik hiltzen da irudimena desagertzen denean.

Azkuna Zentroak Cielo RasOren lana aurkeztuko du Dantzaldian, La Fundiciónen Nazioarteko Dantza Jaialdian.



## ABENDUAK 14, OSTEGUNA

19:00

Auditorioa

Prezioa: kontsultatu webgunean eta AZ Infon

56’

ciacieloraso.com

@ciacieloraso

## FITXA ARTISTIKOA

Koreografia eta zuzendaritza: Igor Calonge

Antzezleak: Ainhoa Usandizaga, David Candela, Emma Riba, Joan Ferré

Zuzendaritzako laguntzailea: Gabriel F.

Argiteriaren diseinua: Sergio García

Jantziak: Amaia Elorza

Eszenografia: Igor Calonge

Argazkia: Dani Blanco

Diruz lagunduta: Eusko Jaurlaritza

Lankideak: Dantzagunea eta Donostia Kultura Egia K.E.

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2023-2024



# AZKUNA ZENTROA, ZINEMAREN LEKUA BILBON

## Golem Alhondiga zinemak
Zinemarekiko konpromisoa urte osoan

---

## Film Sozialak
Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia

**2023ko urriaren 19tik 26ra**

## Zinemakumeak gara!
Emakumeek zuzendutako zinema erakustaldia

**2023ko urriaren 16tik 31ra**

## Zinebi
Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia

**2023ko azaroaren 10etik 17ra**

## Zinexit
Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldia

**2023ko azaroaren 24tik 26ra**

#zinemateka #zinema #MANGA

# Mangatik zinemara. japoniako zinema garaikideko zikloa

Azkuna Zentroko Zinematekak Japoniako zinema garaikidearen monografiko batekin amaituko du urtea. Fundación Japón Madridekin elkarlanean hautatutako bederatzi filmek elkarrizketa bat proposatzen dute manga-sorkuntzaren eta animazio-zinemaren artean. Herrialde honetako ikus-entzunezkoen aberastasuna ezagutzeko zikloa, hala Japonian, nola haren mugetatik kanpo, ikusleen eta kritikarien arreta erakarri duten zinemagileen lanaren bidez.

Besteak beste, Katsuhiro Otomo, zuzendari, gidoilari eta mangaka; Ayumu Watanabe, Doraemonen film gehienak zuzentzeagatik ezaguna; eta Kenji Iwasawa, Annie sarietarako izendatua bere lehen film luzearekin. Era berean, nabarmentzekoak dira zinemagile berrien lanak: Mari Okada, gaur egungo artistarik emankorrenetako bat; Haruka Fujita, film luzeen eta telesailen zuzendaria; Naoko Yamada, anime zinemaren zuzendaririk onenetariko bat; eta Atsuko Ishizuka, duela 20 urtetik Madhouse animazio-estudioari lotua.

Laguntzailea: JAPAN FOUNDATION MADRID

Babeslea: ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

## URRIAREN 17TIK AZAROAREN 30ERA ARTE

Asteartea eta osteguna
Golem Alhóndiga Zinemak
5€ / 4€AZ Txartelarekin
Asteartea, +65 urte: 3,5 €
(leihatilan bakarrik salgai)
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemetako txarteldegian eta golem.es helbidean.

## URRIAK 17, ASTEARTEA

17:30 Zikloaren aurkezpena Fundación Japón Madrid-ekin batera
17:40 Proiekzioa: Akira (1988)
20:00 Ardoa

## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA).

Zikloko eskuliburua AZ Infon hartu, azkunazentroa.eus-en deskarga ezazu edo eskatu mezu elektroniko bat bidalita info@azkunazentroa.eus helbidera, eta harremanetan jarriko gara zurekin.

## PROGRAMA

### Urriak 17, asteartea I 17:30
### Urriak 19, osteguna I 19:30



***Akira*** (1988)
124´ I JBGA I Animazioa
Z: Katsuhiro Ôtomo

### Urriak 24, asteartea I 17:30
### Urriak 26, osteguna I 20:00



***Kono sekai no katasumi ni*** (2016)
128´ I JBGA I Animazioa
Z: Sunao Katabuchi

### Urriak 24, asteartea I 20:00
### Urriak 26, osteguna I 17:30



***Kaijû no kodomo*** (2019)
110´ I JBGA I Animazioa
Z: Ayumu Watanabe

### Azaroak 7, asteartea I 17:30
### Azaroak 9, osteguna I 20:00



***Maquia*** (2018)
115´ I JBGA I Animazioa
Z: Mari Okada

### Azaroak 7, asteartea I 20:00
### Azaroak 9, osteguna I 17:30



***Maindo Gêmu*** (2004)
103´ I JBGA I Animazioa
Z: Masaaki Yuasa

### Azaroak 21, asteartea I 17:30
### Azaroak 23, osteguna I 19:30



***Koe no Katachi*** (2016)
130´ I JBGA I Animazioa
Z: Naoko Yamada

### Azaroak 21, asteartea I 20:00
### Azaroak 23, osteguna I 17:30



***On-Gaku*** (2020)
71´ I JBGA I Animazioa
Z:  Iwaisawa Kenji

### Azaroak 28, asteartea I 17:30
### Azaroak 30, osteguna I 20:00



***Blue Thermal*** (2022)
103´ I JBGA I Animazioa
Z: Haruka Fujita

### Azaroak 28, asteartea I 20:00
### Azaroak 30, osteguna I 17:30



***Nôgêmu Nôraifu Zero*** (2017)
110´ I JBGA I Animazioa
Z: Atsuko Ishizuka

### LABURDURAK
Z: Zuzendaria


Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2023
Iraila
Septiembre
22/30
71
rtve
EUSKADI

#zinema

# Donostiako Zinemaldia Azkuna Zentroan

Azkuna Zentroak, Donostiako Zinemaldiarekin lankidetzan, 72. zenbakiko azken edizioan estreinatutako filmen sorta aurkeztuko du.

Bilboko Zinemaldiaren zikloa astebetez izango da. Haur eta familiei zuzendutako saioak izango ditu asteburuan goizez, haurrentzat eta familientzat pentsatuak.

## PROGRAMA

**Urriak 2, astelehena**

**18:00** Presentación y proyección
*Un amor* (2023)
129´ I JB I Z: Isabel Coixet I
Sail Ofiziala

**Urriak 3, asteartea**

**19:00**
*Xiao Yao You / Carefree Days* (2023)
120´ I JBGA I Z: Liang Ming I
New Directors

**Urriak 4, asteazkena**

**19:00**
*Io capitano* (2023)
120´ I JBGA I Z: Matteo Garrone I
Perlak

**Urriak 5, osteguna**

**19:00**
*Perfect days* (2023)
123´ I JBGA I Z: Wim Wenders I
Perlak

**Urriak 6, ostirala**

**19:00**
*Anatomie d'une chute* (2023)
150´ I JBGA I Z: Justine Triet I
Perlak

**Urriak 7, larunbata**

**18:00**
*Un Silence* (2023)
100´ I JBGA I Z: Joachim Lafosse I
Sail Ofiziala

**20:00**
*Un métier sérieux* (2023)
111´ I JBGA I Z: Thomas Lilti
Sail Ofiziala - Emanaldi Bereziak
Lehiaketatik kanpo

**Urriak 8, igandea**

**18:00**
*La memoria infinita* (2023)
84´ I JBGA I Z: Maite Alberdi I
Perlak

**20:00**
*Puan* (2023)
109' I JBGA I Z: María Alché eta Benjamín Naishtat I Proyecta 22

## URRIAREN 2TIK URRIAREN 8RA ARTE

Auditorioa
5€ / 4€ AZ Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

71 | SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

## HAUR ETA FAMILIENTZAKO PROGRAMA

**Urriak 4, asteazkena**

**10:30** Ikastetxeak
*Superheroien familia* (2022)
76´ I Z: Rasmus A. Sivertsen

**Urriak 5, osteguna**

**10:30** Ikastetxeak
*Ilargirantz* (2022)
85' I Z: Ali Samadi Ahadi

**Urriak 7, larunbata**

**12:00**
*Superheroien familia* (2022)
76´ I B Eus I Z: Rasmus A. Sivertsen

**Urriak 8, igandea**

**12:00**
*Ilargirantz* (2022)
85' I B Eus I Z: Ali Samadi Ahadi

**LABURDURAK**:
Z: Zuzendaria
JB: Jatorriko bertsioa
JBGA: Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz azpititulatua

# SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK



# Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa

Azkuna Zentroak Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentro gisa duen misioaren barruan dago sorkuntzan laguntzea. 2019-2023 Programa Proiektuaren bidez, laguntza, konplizitatea eta elkarrekiko ekarpena dira prozesu artistikoen sustapenaren ardatzak.

Urtero esparru honetan garatzen diren proiektuak, 20 lan baino gehiago, diziplina anitzekoak dira eta programazioari lotutako daude: dantza, antzerkia, zinema, komikia, musika, letrak. Gainera, alderdi publiko bat dute beti, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez. Artisten, ikertzaileen, kolektiboen eta publikoen komunitateen arteko topaketa horiek egonaldian zehar egiten dira, baina, batez ere, Ate Irekien Jardunaldiaren esparruan. Hurbileko sormen-ehuna nazioarteko kultura-ingurune homologagarriekin lotzea ere sustatzen da, trukeak, harremanak eta lankidetza iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatuz.

Batez ere ibilbide ertaineko artistei zuzendua, Sorkuntzan Laguntzeko Programak emaitzan eta prozesuan jartzen du arreta. Horretarako, zentroak espazio dinamiko bat izan nahi du, proba eta erroreko saiakuntzak eta ariketak egiteko baldintza egokiekin, beste denbora batzuekin, sorkuntzak behar dituen denborekin, hain zuzen.

Sorkuntza artistikoa espazio guztietan gertatzen da, baita erakusketa-aretoan edo Mediatekan ere. Hala ere, Lantegia. Ideien laborategia da sormenaren eta esperimentazioaren erreferentziazko espazioa Azkuna Zentroan. Bi solairuko eraikin bat da, eta ikerketarako, ezagutzarako eta praktika artistikorako zortzi laborategi, erakusketa-espazio bat eta eszenaratze garaikiderako agertoki espezifiko bat ditu. Lanerako habitat bat da, esperimentazio-tailer bat, eta harreman mota desberdinak ezartzen dira trukea, prozesuak eta sorkuntza artistiko garaikidea errazteko. Bai eta leku ireki bat ere, sarbide librekoa, zentroan bizi den komunitatearen lana ezagutzera hurbildu nahi duten publikoen komunitate guztientzat.

Azken lau urteetan egonaldi berriak aktibatu dira esperimentaziorako, hausnarketarako eta ezagutza partekaturako gune gisa. Gaur egun, Azkuna Zentroak sorkuntzan laguntzeko zazpi programa bultzatzen ditu, eta, horien bitartez, aurten eta datorren urtean, ia hogeita hamar proiektu aktibatuko dira:

· Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarrak

· Ikertzaile AZ Kideak

· Artista AZ Kideak

· Lanean. Laguntasuna prozesuetan

· Nazioarteko egonaldi gurutzatuak: Dantza, praktika artistikoak, komikia

· Babestu. Sorkuntzan Laguntzeko Programa

---


ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programak Etxepare Institutuaren laguntza du.

Sabadell Fundación

Banco Sabadell Fundazioak Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programa sustatzen du, artea eta kultura bultzatzeko eta zabaltzeko duen programaren barruan.

urbegi

Azkuna Zentroko Kolektibo Egoilarren programak Urbegiren laguntza du

# Dantzan Bilaka 2023

Urrian, Dantzan Bilaka 2023 programaren esparruan garatutako zazpi proiektuen lan-prozesuak aurkeztuko dira Azkuna Zentroan. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bultzatzen duen laguntza- eta sorkuntza koreografiko- programa da, Dantzan Bilakako komisio artistikoak koordinatuta, ADDE Euskal Herriko Dantzaren Profesionalen Elkartearekin elkarlanean

Programarekin lankidetzan, eta Azkuna Zentroak sorkuntzari laguntzeko duen estrategiarekin bat etorriz, jardunaldi hauetan, sorkuntza koreografikoko prozesuen ikaskuntza, ikerketa eta garapenerako gune honetan aurten egin diren lanak aurkeztu, eta publikoarekin partekatuko dira.

**URRIAK 6, 7, 8**

## PROGRAMA

### AURKEZPENAK

Sarrera dohainik lekua bete arte

**Urriak 6, ostirala**

**19:00 Natalia García Muro**
*El Espacio de los Límites*
24' | Lantegia 1

**20:00 Eire Larrea Alonso** ***Neskalatorio***
30' | Kubo Baltza

**Urriak 7, larunbata**

**16:30 Izarne Oyarzabal** ***ENSAYO DE FORMA***
40' | Lab 2. Lantegia 2

**17:30 Ander Fernández** ***ni neure gorputza izanez naiz / yo soy siendo mi cuerpo***
30' | Kubo Baltza

**18:30 Dácil Wijkström** ***AE***
20' | Lab 2. Lantegia 2

**Urriak, 8, igandea**

**16:30 dpvillanueva eta Oihana Altube**
*las bailarinas*
20' | Lab 2. Lantegia 2

**17:30 Ane Zapirain Gorostegi** ***Agortu***
20' | Kulturen Ataria

### TAILERRA

Informazioa eta izen-emateak: addedantza.org

**Urriak 6, ostirala. 16:30 - 18:30**
**Urriak 7, larunbata. 11:00 - 13.30**
**Urriak, 8, igandea. 11:00 - 12:30**

**Carolina Campos** ***Prácticas de co-acompañamiento*** | Iparraguirre Aretoa

# Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology. ACuTe

## Egonaldi berriak

Azkuna Zentroa ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology-ren partnerra da, eta, hilabete hauetan, berrikuntza eta teknologia arte eszenikoetan aplikatzen dituen proiektu europar honen esparruan aktibatu diren lehen bi egonaldien egoitza izan da.

Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean egindako Prototipoak Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Biurtekoarekin bat eginez, dramaturgia, eszenografia eta teknologia berrien arloko bertako, nazioko eta nazioarteko profesionalak bildu ziren zentroan. Topaketa horretan, teknika digitala eszenara aplikatzeari buruzko esperientziak partekatu zituzten, soinutik, arte bisualetatik, gorputzetik, hitzetik eta ingeniaritzatik abiatuta.

Irailean ACuTeren bigarren egonaldia izan da. Kasu honetan, Craiovako (Errumania) National Theatre Marin Sorescu-ren talde bat aritu da *Reconstituirea* proiektu eszenikoa sortzen. Bilboko egonaldian, Catinca Drăgănescuk, Ciprian Făcăeruk, Sabin Şerban-ek eta Dan Făcăer-ek diziplina anitzeko ekoizpen eszeniko honen prototipoa landu dute, antzerkia, zinema eta errealitate birtuala, zuzeneko artistak eta geruza askotako mediaturgia gamifikatua barne hartuta.

Reconstituireak egiaren eta fikzioaren arteko mugak aztertzen ditu "birsortzeko" prozesuaren barruan. «Ahalegin bat da pertzepzioak egungo gizartean errealitatearen bertsio subjektibo askoren sorreran nola eragiten duen ulertzeko. Bertsio horiek kritika soziala eta sortzen ari diren hedabideen teknologiak erabiltzen dituzte», azaldu du konpainiak.

Ikerketa-prozesu interaktibo horren bidez, teknologia zaharren eta berrien arteko elkargunean dauden esperientzia- eta arte-adierazpenak aztertzen dira. Proiektuak teknika erabiltzen du esperientzia



*Reconstituirea*

interaktiboak errazteko elementu gisa, eta izpi katodikoen hodiak dituen telebista baten funtzionaltasuna lotzen du gorputz osoaren jarraipena egiteko azken belaunaldiko errealitate birtualeko sistema batekin.

### Azkuna Zentroaren ekoizpen berria

Bestetik, urteko azken hiruhilekoan, Azkuna Zentroak Europako programa horren barruan ekoitzitako pieza eszeniko esperimentalaren sorkuntza aktibatuko da, eta Prototipoak 2025 Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Biurtekoaren esparruan estreinatuko da.

Ziomara Hormaetxe koreografoak zuzendu eta interpretatzen du ekoizpen berri hau, hainbat arlotan aditua den eta diziplina asko —hala nola storytelling-a, sortzen ari diren teknologiak eta koreografia— lantzen dituen talde batekin lankidetzan. Proiektuaren helburua da berritzea istorioak eszenatokian kontatzeko eta ekoizteko modua, eta publikoak elkarreragiteko eta haiekin konprometitzeko modua.

### Berrikuntza sorkuntza eszenikoan

ACuTe Europako partzuergo bat da, eta erreferentziako 14 kultura-zentro, unibertsitate eta arte sortzaileetako erakunde ditu. Azkuna Zentroarekin batera, horien artean daude Ars Electronica eta European Theatre Convention, Europako antzoki publikoen erakunderik handiena, duela gutxi antzerkirako estrategia digital bat ikertzera bideratutako Europako lehen think tanka sortu duena.

Aliantza hau aukera ederra da sorkuntza eszeniko garaikidea testatzeko, ikertzeko eta berritzeko. Teknologia digitala eta baterako sorkuntzako metodologiak integratzen dituen diziplinarteko ikuspegi batekin, "kultura-proben banku" bat sortuko da, prototipo ukigarriak probatzeko eta eratzeko arte eszeniko eta dramaturgia berrien ekoizpenetan, diseinu eszenikoan eta publikoaren parte-hartzean.


Prototipoak 2023

# Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa - 2023

Babestu Sorkuntzari Laguntzeko Programaren deialdian hautatutako artistak lanean ari dira dagoeneko beren proiektuak sortzeko prozesuetan, Lantegia Ideien Laborategian.



## Oihana Vicente

*REEL CINEMA_filming movies randomly*

Oihana Vicente (Bilbo, 1984). Artista eta aktorea. Orain arte antzerkian, performancean eta eskultura-instalazioan lan egin izan du.

15 eta 18 urte bitarteko gazteekin egindako ***REEL CINEMA_filming movies randomly*** jolas-tailerrean, artistak eta parte-hartzaileek ikus-entzunezko piezak deseraiki dituzte, berriz ekoizteko, «fikzio- eta ekoizpen-mailan bizitzeko ahalegina eginez, eta, horrela, lan multi-level bat sortu dute». Prozesuan ikus-entzunezkoen etapa eta tresna tradizionalak aztertu dituzte, baita sare sozialek gaur egun proposatzen dituzten egiturak, baliabideak eta formatuak ere.

#ikus-entzunezkoak #bideo-artea #newmedia



## Pablo Marte

*Violencia Fantasía*

Pablo Marte (Cádiz, 1975) artista, idazlea eta ikertzailea da. Bere lana idazketan eta horrek mugimenduan dagoen irudiarekin duen harremanean hasten da, muntaiaren bidez eta irudia espazializatzeko moduak ikertzen.

Pablo Martek Deseo Real deitzen duen trama afektiboa du ardatz, zeinaren ikerketa-ildoetako bat ***Violencia Fantasía***. Honek, desioaren eta indarkeriaren arteko harremana aztertzen du edertasunaren eraikuntzan. «Zehazki, indarkeriak gure munduan egokitzeko dituen modu sotil batzuk aztertzen ditu, edertutako irudikapenetatik fantasiaraino hedatuak, bere buruaren irudi ezin hobea sortzearekin obsesionatuta dagoen gizartean».

#ikus-entzunezkoak #performancea #narratibaberriak

## Julia Martos



*Un vestido claro clarísimo*

Julia Martos (Córdoba, 1989) artista bisuala eta programatzailea da. Ikus-entzunezko azken lanetan autobiografia eta historia pertsonala erabili ditu errealitate sozial zabalagoen input bideratzaile gisa.

***Un vestido claro clarísimo*** zinema dokumental garaikidearen, artistaren filmaren eta artxibo pertsonalarekin egindako lanaren arteko elkargunean kokatzen da. Proiektu honen abiapuntua artistaren amonaren gutunen, egunkarien eta beste dokumentu batzuen artxiboa da, «eztabaida-gune gisa funtzionatzen baitu, bere ahalmen narratologikoak eta garaiko genero-irudikapen naturalizatuak deseraikitzeko gaitasuna zalantzan jartzeko».

#artxiboa #bideo-saiakera #artistmovingimage

---



## Maia Villot

*AMA ~~preludio~~*

Maia Villot de Diego (Sevilla, 1977) artista, komisario eta liburu-saltzailea diziplina anitzetik ari da lanean, arreta-mota bat sortzeko ideiaren inguruan, kontenplazioarekin, entzutearekin eta irudiei beren kabuz hitz egiteko denbora ematearekin zerikusia duena.

***AMA ~~preludio~~*** ehen hurbilketa bat da dominatrixaren figurara, femme fatal-ari lotutako beste estereotipo femenino baten gisa. Oraingo honetan, irudi bati eutsi nahi zaio, hainbat irudi dituen keinu bati. «Zerbait dago eskegirik, mugituz, kulunkatuz, inarrosiz, zintzilik, inguratuz, jiratuz, laztanduz, ukituz eta astinduz. Zerbait zabaltzen, hedatzen, luzatzen, harilkatzen, korapilatzen, lotzen, estutzen, eusten, tenkatzen, besarkatzen, babesten, inposatzen, mintzen, berotzen eta gorritzen. Zerbait da hasten, hasten, hasten eta noizbait amaitzen».

#gorputza #ahotsa #eskultura #performancea

---

## Estanis Comella



*SXT (Source by Transkription) – AP7: VEIL*

Estanis Comella (Lleida, 1985) Artista. Antolaketa-sistema eta displays hedatuen bidez lan egiten du, praktikatik sortzen diren gertaerak irudiarekin, trazu analogikoarekin, soinuarekin edo eskulturarekin lotzeko.

***SXT (Source by Transkription)*** sistema narratiboan, idazketak eta musika-ekoizpenak bat egiten dute, geruza zulatu eta gainjarri gisa. AP7:VEIL bariazio espezifikoan hainbat denbora- eta materialtasun-blokek bat egiten dute zeharka lainoaren ideiarekin. «Zuzenekoak, argitalpenak eta espazioak berak aukera ematen dute prozesuen arteko lotura horiek sortzeko, baita etengabeko beharra ere zabaltasuna sortzeko, lana gidatzen duten harremanen bidez».

#narratibaberriak #gorputza #ahotsa

## Artista AZ-kideak

Sorkuntzari laguntzeko programa, lengoaia garaikideei buruzko inspirazio-iturri diren lanak egiten dituzten artistei laguntzen diena.



### Elena Aitzkoa

*Ur aitzak*

Elena Aitzkoa (Apodaka 1984) diziplina anitzeko artista da. Bere praktikak eskultura, marrazketa, poesia eta performancea batzen ditu. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian.

#eskultura #poesia

### Miguel A. García

*Comclapompos. Usar el flujo como un cauce*

Miguel A. García (aka Xedh) ektroakustikoa hartzen ditu. Gailu elektronikoen hondakinetatik lortutako sonoritateak erabiltzen ditu esperientzia intimo, murgiltzaile eta bizi baten bila.

#musikaesperimentala #inprobisazioa





### Ion Munduate

*Rosa de los vientos (Haize-arrosa)*

Ion Munduate (Donostia, 1969) Calvorekin batera, 1994an lankidetza artistikoa hasi zuen, eta hainbat lan sortu zituzten. Aldi berean, *Mugatxoan* sortu zuten 1998an (Gure Artea 2015 saria), ikerkuntzan eta sorkuntzan oinarritutako prestakuntza-proiektua. Bere performance eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira.

#dantza #ikerketa

## Ikertzaile AZ-kidea

Egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena bultzatu eta sustatzeko programa, komunitate artistikoen, publikoen eta beste profesional batzuen arteko trukea errazten duena.

### Isabel de Naverán

*La ola en la mente (Uhina gogoan)*



Isabel de Naverán *La ola en la mente* ikerketa lana garatzen ari da. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumenen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

#gorputza #idazketa

---

## Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarra

Hurbileko kolektiboei zuzendutako bi urteko akonpainamendu programa, lengoaia artistiko eta kultura garaikidea lantzen dutenak, hainbat forma eta begiradetatik.

### Urbanbat

*Behatokia*



Hiri-berroneratze Urbanbat bulegoak *Behatokia* programa garatzen du, hiria ikuspegi transdiziplinar batetik behatzeko hiri-ikerketarako laborategia.

#gizartea #SituationRoom

# HEZKUNTZA PROGRAMA



#hezkuntza #bitartekotza #literatura #komikia #zinema

# Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera... ekin!

**Asteartea, urriak 31**
Federico Fellini. *La Dolce Vita*

**Asteartea, azaroak 14**
Katsuhiro Otomo. *Akira*
*Mangatik zinemara. Japoniako zinema garaikidea*
*Zinematekako* zikloarekin lotuta
Informazio gehiago: 24. orrialdea

**Asteartea, abenduak 12**
Martin Scorsese. *La Edad de la Inocencia*

**HELDUAK**

**ASTEARTEA: URRIAK 31, AZAROAK 14, ABENDUAK 12**

18:30-19:30
Mediateka BBK: TK101 / TK201

---

# Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

**Asteazkena, urriak 25**
Antonio Altarriba, *Kim. El arte de volar*

**Asteazkena, azaroak 15**
Katsuhiro Otomo. Akira
*Mangatik zinemara. Japoniako zinema garaikidea*
*Zinematekako* zikloarekin lotuta
Informazio gehiago: 24. orrialdea

**Asteazkena, azaroak 22**
David B. *Epiléptico: la ascensión del gran mal*

**HELDUAK**

**ASTEAZKENA: URRIAK 25, AZAROAK 15, AZAROAK 22**

18:30-19:30
Mediateka BBK: TK202

#bitartekotza #literatura #komikia #zinema

# Club de Lectura Fácil

**Gaztelania**

**Asteartea, urriak 3, 10, 17, 24, 31**

*El gran Gatsby*

**HELDUAK**

**ASTEARTEA: URRIAK 3, 10, 17, 24, 31**

17:00-18:00
Mediateka BBK: TK101 y 201

---

# Irakurketa Erraza

**Euskera**

**Asteartea, urriak 24 eta 31**
**Osteguna, azaroak 7, 14, 21 eta 28**

Cira Crespo. *Euskal Herriko 40 emakume. Egon ginen, izan ginen*

**HELDUAK**

**ASTEARTEA: URRIAK 24 ETA 31**
**OSTEGUNA: AZAROAK 7, 14, 21 ETA 28**

17:00-18:00
Mediateka BBK: TK101 / TK201 / TK202

---

# Hiriko Literatura

**Osteguna, urriak 5**
Orhan Pamuk. *Estambul*

**Osteguna, azaroak 2**
Yashunari Kawabata. *Kioto*
*Mangatik zinemara. Japoniako zinema garaikidea*
*Zinematekako* zikloarekin lotuta
Informazio gehiago: 24. orrialdea

**Osteguna, azaroak 23**
Anónima. *Una mujer en Berlín*

**HELDUAK**

**OSTEGUNA: URRIAK 5, AZAROAK 2 ETA 23**

18:30-19:45
Mediateka BBK: TK201

#hezkuntza #bitartekotza #ikus-entzunezkoak #tailerra #jasangarritasuna

# Bisita-tailerra *Decrecer* erakusketara

*Urritu* erakusketan, Bene Bergado eskultoreak hausnartzen du nola bizi daitekeen hobeto gutxiagorekin, nola jabetu etengabeko hazkundea ezinezkoa dela planeta mugatu batean.

Tailer-bisita honetan, analisi bat proposatzen da, gure kontsumo-ekintzak harremanetan jartzeko lehengaiaren jatorriarekin, produktu bihurtzeko tokiarekin eta, batez ere, hondakin-lekuekin. Mapa kolektibo bat sortuko dugu eta gainean seinalatuko dugu nondik datozen daramatzagun jantziak eta objektuak.

Hori bistaratzea lagungarri izango zaigu iruzkintzeko ehungintzako ekoizpen-moduak eta ekipamendu elektronikoa sortzeko behar diren mineralen jatorria; baita beste zabortegi global batzuk mapatzeko ere. Sistemaren konexioak eta konplexutasunak bistaratuko ditugu, horien funtzionamendua ulertzea funtsezkoa baita sistema alternatiboak diseinatzeko eta irtenbideak bilatzeko.

**ESKOLA**

**ESKOLA-EGUNAK DIREN OSTEGUN GUZTIAK, 2023KO IRAILA ETA ABENDUA BITARTEAN**

11:00-13:00

Ikastetxeekin itundua



#bitartekotza #zinema #antzerkia

# Zinemaldia ikasleentzat

Azkuna Zentroko Zinemaldia programak, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin lankidetzan garatutakoak, haurrentzako film-sorta bat biltzen du, eta ikastetxeekin hitzartutako saioak ere baditu.

## PROGRAMA

**Urriak 4, asteazkena | 10:30**
***Superheroien familia*** (2022)
Z: Rasmus A. Sivertsen
G: Kamilla Krogsveen.
76' | Norvegia

**Urriak 5, osteguna | 10:30**
***Ilargirantz*** (2022)
Z: Ali Samadi Ahadi
G: Ali Samadi Ahadi, Arne Nolting, Gerdt von idazlearen liburutik abiatuta Bassewitz | 85'

**ESKOLA**

**AZTEAZKENA, URRIAK 4**
**OSTEGUNA, URRIAK 5**

10:30
Ikastetxeekin itundua

**LABURDURAK**
Z: Zuzendaria | G: Gidoia

# Mitusu, haur eta gazteentzako antzerkia

Azaroan, berriz ekingo zaio ikastetxeetako publikoa arte eszenikoekin elkartzeari, Mitusuk eta Azkuna Zentroak egindako proiektuaren bidez. Programak hiru antzerki-proposamen eta ikastetxeekin hitzartutako sei emanaldi ditu.

**Azaroak 21, asteartea**
**9:45 eta 11:30**
***Esna***. Marie de Jongh

**Azaroak 22, asteazkena**
**9:45 eta 11:30**
***Baltasar jaunaren animaliak***
Teloncillo

**Azaroak 23, osteguna**
**9:45 eta 11:30**
***104. Haurra***. Yarleku

**ESKOLA**

**AZAROA: ASTEARTEA 21, ASTEAZKENA 22 ETA OSTEGUNA 23**

9:45
11:30
Ikastetxeekin itundua

AZ


SHOP
DENDAZ. THIS IS
BASQUE DESIGN
INFO
SHOP
DENDAZ. THIS IS
BASQUE DESIGN




# Mugak/

Euskadiko Nazioarteko
Arkitektura Bienala

**bienalmugak.eus**

AZTEAZKENA, AZAROAK 22

18:30 - 20:30
Arkitekturari buruzko jardunaldia
Beatriz Colominarekin

Mugak/
Fronteras
Boundaries

# Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdi

**kcd-ongd.org/cine-invisible**

2023KO URRIAREN 19TIK 26RA

# Zinemakumeak gara!

Emakumeek zuzendutako
zinema erakustaldia

**zinemakumeak.com**

2023KO URRIAREN 16TIK 31RA

ZG! ZINEMAKUMEAK GARA!
MUESTRA DE CINE DIRIGIDO POR MUJERES

# Zinebi

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren
Nazioarteko Jaialdiak

**zinebi.eus**

2023KO AZAROAREN 10ETIK 17RA

ZINE BI

# Zinexit

Giza Eskubideen Zinema Erakustaldia

**zinexit.net**

2023KO AZAROAREN 24TIK 26RA

Zinexit



Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa



Urbanbat. *Behatokia 5*

2023-2024

# ERAKUSKETAK

2023KO EKAINAREN 29TIK 2024KO URTARRILAREN 7RA

## Bene Bergado

*Decrecer*

Komisarioa: Juan Luis Moraza

ERAKUSKETA ARTEOA

2024KO OTSAILAREN 8TIK MAIATZAREN 26RA

## Christa Sommerer & Laurent Mignonneau

*The Artwork As A Living System*

ERAKUSKETA ARTEOA

GUTUNZURIA BILBAO

# LETREN
NAZIOARTEKO JAIALDIA

# FESTIVAL
INTERNACIONAL DE LAS LETRAS

# INTERNATIONAL
LITERATURE FESTIVAL

## 2024

OTSAILAREN 27TIK
MARTXOAREN 2RA

gutunzuria.azkunazentroa.eus

# dendAZ. This is Basque Design

## AZKUNA ZENTROAREN SALTOKIA




**Diseinua**

**Ilustrazioa**

**Argitalpenak**

**Moda eta osagarriak**

**Dekorazioa**

**Upategia**

**Tokiko artista eta kolektiboenak:**
Abana Bilbao, Aerre Design, Ailanto, Amakuyi, Ane Pikaza, Angélica Barco, ANTI Liburudenda, BaRock, Cookplay, Dots., Elena Ciordia, Fournier, From the Basque Country, H05_BILBAO, Higi Vandis, Josune Urrutia, Katxi Kolthing, Kiribiltxo, KreativeArt, Malús Arbide, Mario Gaztelu, MRLaspiur, Nerea Gómez, Palo Palú, Susana Blasco, The Real Studio, Tytti Thusberg, Yolanda Sánchez, Zioru, Ziriak.

---

**Online saltokia:**

**dendaz.azkunazentroa.eus**

---

**Hurrengo This is Basque Design Merkatua:**

2023ko azaroak 24, 25 eta 26

# AZ argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenek praktika artistiko garaikidea jasotzen dute, ezagutu eta zabaltzeko



## LP Biniloa

*Eyezorros*

Miguel A. García

**A aldea:** 1. posb01 yunman-04:40 / 2. oceanusbf 07:58 / 3. prism 05:58

**B aldea:** 4. yonyo hiru 10:42 / 5. guuu-08:02

22€




## Liburu-Erakusketaren katalogoa

*Somewhere from here to heaven*

Eus. / Gas. / Ing.

Orrialdeak: 112

24,5 × 32 cm

33€



## Koadernoak

*Metakoadernoak. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren sorkuntza-koadernoak*

Eus. / Gas. / Ing.

5€



## Erakusketaren katalogoa

*Una voz para Erauso.*
*Epílogo para un tiempo trans*

Cabello/Carceller

Eus. / Gas. / Ing.

Orrialdeak: 316

24€




## Fanzine

*Consejo de sabias*

Sra Polaroiska

Eus. / Gas.

Orrialdeak: 70

16 x 16 cm

14€



## Liburu-objektua

*Catálogo de derivas*

Oscar Gómez Mata -Artista AZ-kidea - eta Esperanza López

Eus. / Gas. - Ing. / Fra.

20 orrialdeko liburutxo bat, 12 diptiko, 11 txartel eta gutun-azal eta hiru zabaltzeko-orri, guztiak diseinu-kutxa batean

25€




## Ezagutu gure azken argitalpenak dendAZ, Azkuna Zentroaren Saltokian eta dendaz.azkunazentroa.eus

# Kontsultatu artxiboAZ,

## Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren Artxibo Digitala



# TAILER BERRIAK
# JARDUERA FISIKOKO ZENTROAN

2023. URRIA-AZAROA-ABENDUA

### HIPOPRESIBOAK
Urriak 9 > 18
Astelehen eta asteazkenetan:
18:00-19:00

### PRANAYAMA: ARNASTEN IKASI
Urriak 28 > Abenduak 2
Larunbatetan: 12:15- 13:30

### OSASUNAREN NUTRIZIOA
Azaroak 3 > 24
Ostiraletan: 12:30 -13:30

### CALISTENIA GAZTE
Azaroak 3 > 24
Ostiraletan: 19:00 - 20:00

### GRABITATEA 0 (HASIERA)
Azaroak 6 > 29
Astelehen eta asteazkenetan:
18:00-19:00

### ERORIKOAK PREBENITZEA (+60)
Abenduak 12 > 21
Astearte eta ostegunetan 12:30 - 13:30

# GAZTE PROGRAMA BERRIA

**12 eta 15 urte arteko gazteei zuzendutako programa.**

**Kirol-eskaintza esklusibo handiagoa zuretzat:**

Gimnasiora gainbegiratuta sartzea: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara

Lur eta uretan zuzendutako jarduerak:
-gAZte entrenamendu funtzionala
-gAZte HIIT
-gAZte Dantzazum
-UrgAZte
-gAZte kardio-hegalak

**Informazio gehiago izateko eta izen emateko:**
**Jarduera Fisikoko Zentroko informazio-mahaia**

# INFORMAZIO OROKORRA

## ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.
Kontsultatu ordutegi bereziak webgunean

## BISITA GIDATUAK

eraikina

### Bisita gidatuak eraikinetik

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

**Partikularrak**

· Asteartea eta asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).

· Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

**Taldeka**

· Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonoan edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoaren bidez.

· Prezioak:
Euskaraz edo gaztelaniaz: 60 € taldeentzat.
Ingelesa edo frantsesa: 70 € taldeentzat.
Elkarte eta ikastetxeentzat (aldez aurretik kontsultatu).



erakusketak

### Erakusketarako bisitak

· Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketak testuinguruan kokatzeko:

**Bene Bergado. *Decrecer***

Erakusketa Aretoa

Ostegunero, 18:30etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera)

Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

## AZ TXARTELA

AZ Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan AZ txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

## DESKONTUAK ETA PREZIO BEREZIAK

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok kultura-aniztasun irisgarria sustatzen du pertsona guztientzat, eta, besteak beste, tarifa murriztuak ditu, % 25 inguruko deskontuekin hainbat publiko-komunitaterentzat:

· 65 urtetik gorako pertsonak
· 30 urtetik beherako pertsonak
· % 33tik gorako desgaitasuna duten pertsonak
· Gurpil-aulkian dauden pertsonak eta laguntzailea
· Profesionalak
· Ikasleak
· 8 pertsonatik gorako taldeak
· AZ txartela duen publikoa

## GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu **golem.es** webgunean.

## YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu **yandiola.com** webgunean.

## IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria.

Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetezkoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.

Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.

AENOR
ACCESIBILIDAD UNIVERSAL
UNE 170001-1

Kontsultatu zentroaren irisgarritasun-neurriak gure webgunean: azkunazentroa.eus

HARPIDETU ZAITEZ
GURE NEWSLETTER-ERA
AZKUNAZENTROA.EUS
HELBIDEAN

HILEKO PROGRAMAZIOA
AUDIOZ

Audio formatuan deskarga dezakezu:
soundcloud.com/azkuna-zentroa

KONTSULTATU PROGRAMAZIOA
HEMEN: AZKUNAZENTROA.EUS

# JAR ZAITEZ HARREMANETAN AZ-REKIN

944 014 014
info@azkunazentroa.eus

Lege gordailua BI 01482-2018
© 2023. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO